

Haur eta helduentzako ipuin liburua

Baztango ahozketasuna gorde nahian CD batekin dator 'Baztango ipuinak' liburua

XAN HARRIAGUE

Ipuinek sutondoan esateko aro ona abendue. Erran zahar horrek dioena kontuan hartuz, Xorroxin Irratiak urtaro ona aukeratu du Baztango Ipuinak liburua plazaratzeko. Neguko arrasti hotzak pasatzeko eskualdeko 27 istorio bildu dituzte haur eta helduentzat.

Lan berria aurkeztu dute duela gutxi Fermin Gartxintorena (Berroeta, Nafarroa) irratiko esatariak eta Paskual Rekalde (Amaiur, Nafarroa) kolaboratzaileak, duela gutxi estreinatu duten egoitzan. Duela bi urte eskualdeko musika taldeen bilduma atera eta gero, proiektu berri horretan sartu ziren eskualdean ahoz aho hedatzen ziren ipuinak biltzeko.

Ipuin guztietan bezala, mitologiako pertsonaia edo animalia berberak agertzen dira, hala azeria, nola laminak eta sorginak. Baina kontakizun guztiak Baztanen kokatzen dira. Horren froga dira erreken, herrien eta baserrien izenak, esaterako.

Istorio gehienak ezezagunak dira, baina bertze batzuk ospea daukate, errate baterako, 1912an Aita Donostiak idatziz bildutako Urtsuako Ermitaren ipuina. Fama hartu zuen horri buruz Benito Lertxundi eta Mikel Laboak kantatzen duten Urtsuako kantari esker. XVI. mendean Arizkungo Urtsua Jauregiko semea Frantziako emazteki batekin ezkondu zen, baina berehala ohartu zen dagoeneko haurdun zegoela. Orduan ermitara eramane eta, han bertan hil zuen ezpata ukaldi batekin. Jauntxoak Frantziara alde egin zuen, eta ez zen gehiago han barna ikusi. Kondairak dio haren anaia apezak utzi zuela haurdun gaixo emaztekoa.

Ipuinak biltzeko orduan, hiru iturri izan dituzte nagusiki. Garrantzitsua, diotenez, Resurreccion Maria de Azkueren *Euskal Herriaren Yakintza* izan da. Gerla zibila baino lehen idatziz eman zituen Cruz Goienetxe, Juan Bautista Gorosurreta eta Felipa Lastiri baztandarrei entzundako kondairak. Bertze bi erreferentziak, garaikideagoak dira, *Baztango Mintzoa*, *Gramatika eta Hitzegia*, eta *Baztan Solasean*.

CDan ipuinak entzun daitezke Baztango herri guztietako 27 herritarrek kontaturik



Paskual Rekalde eta Fermin Gartxintorena liburua eta CDarekin. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



Liburuko marrazki batzuk.

Liburuaren aitzinsolasean, Rekaldek dioenez, oso interesgarriak dira euskalkien aldetik begiratuta. Aspaldiko ipuinak izaki, batzuk moldatu behar izan dituzte ulergarriagoak izateko edo besterik gabe haien jatorrizko euskalkira itzultzeko.

Aldaketak arretaz egin dituzte: «Ahozkoak izanik, laburdurak, onomatopeiak, eta hutsuneak bertzeak bertze kendu behar izan ditugu, baina bat-bateko kontakizunek duten bizitasuna galdu gabe».

CDa LAGUNTZEKO. Idatzizko arauak errespetatzeko aldaketak egin behar izan badituzte ere, ipuinen izaeraz deus ez galtzeko, libururaren bat dator CDa.

CDan entzun daitezkeen ipuinak Baztango herri guztietako 27 herritarrek kontatzen dituzte. Gartxintorenak azpimarratu duenez, gainera, atal hori ezinbestekoa iruditu zitzaion.

«Gure helburuetariko bat zen ipuin horien biltzea, baina bertze bat hemengo hizkera gordetzea.

Baztanen hiru azpi euskalki daude, eta CD horretan saiatu gara horren isla ematen, Basaburukoa, Erberakoa eta Elizondokoa, eta Baztangoizakoa.

Fermin Gartxintorenak aitzinatu duenez, Baztango irratia eskualdeari egiten dizkion ekarpenak kultur mailan ez dira horretan geldituko. Dagoeneko bertze bi proiektutan pentsatzen ari dira, baina oraindik ongi zehaztu gabe daudela eta, ez du zehaztasun gehiago eman nahi izan.

LIBURU FITXA



■ **Izenburua.** *Baztango ipuinak.*

■ **Egilea.** Xorroxin Irratia.

■ **Editorea.** Dindala fundazioa 27 ipuin, 79 orri.

■ **Marrazkiak.** Zubiet.

■ **Musika.** Amaia Tellebea, Iñigo Aspurriz, Oskar Estanga, Xabier Tapia eta Fermin Garbintorena.

■ **Prezioa.** 10 euro

■ **Maketazioa.** Kulturkari.

■ **Salgai.** Elizondoko liburu dendetan eta Xorroxin Irratiko egoitzan.